


# AURREIKUSPEN BERRIAK

## EAEko ekonomia %6,7 haziko da aurten eta %5,7 datorren urtean

### BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

BPGA 2021  
**%6,7**




Behin laugarren hiruhilekoko kontu ekonomikoak eta inguruneko aldagai nagusiak ezagututa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2021-2022 aldirako aurreikuspenak eguneratu ditu. Aurreikuspen berri horren arabera, EAEko ekonomia %6,7 haziko da aurten, hau da, abenduan espero zena baino ia bi puntu gutxiago. Beheranzko zuzenketa horren arrazoi nagusia birusaren kutsatze olatu berriak agertu izana da, eta horrek suspertzeko prozesua atzeratu du.

Eszenategi makroekonomiko berrian, EAEko ekonomiak %2,5eko urte arteko jaitsiera izango du lehen hiruhilekoan eta horri %17,8ko errebote ezohikoa jarraituko dio. Hazkunde hori murrizketak oso zorrotzak izan ziren eta jarduera ekonomikoa oso murriztua izan zen 2020ko hiruhilekoarekin alderatzen delako lortzen da. Une horretatik aurrera, urte arteko tasak sendoak izango dira, baina txikiagoak. Oro har, 2022an EAEko BPGa %5,7 haziko da, urtean zehar erritmoa nabarmen motelduz.


### AZKEN KONTSUMOIA

Urte arteko aldakuntza tasa




### KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




## INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Eszenategi berrian, industriak gainerako sektoreek baino susperraldi azkarragoa izango du; aurten, %8,3ko hazkundea izango du, eta pixkanaka motelduko da, 2022ko laugarren hiruhilekoan balio apalagoetan kokatu arte. Zerbitzuen bilakaera lauagoa izango da: denbora gehiago beharko du indarra hartzeko, baina epe luzeagoan iraungo du. Horrela, datorren urteko laugarren hiruhilekoan bere balio erantsia %3,1 igoko da eta une horretako sektorerik dinamikoe-na izango da.

Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko lanpostuak nabarmen handituko dira aurreikusitako bi urteetan, eta, bi urteetan, 2020an baino 70.000 inguru gehiago izango dira. Hala ere, ez da nahikoa izango 2020an galdu ziren 80.000 enpleguak berreskuratzeko. Langabezia tasa oso gutxika jaitsiko da eta 2022 amaieran %9,3an kokatuko da.


## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza atsa



## LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.